



SEI HILABETEKO GREBA ONDOREN AKORDIOA FAUSTINO ORBEGOZON

Oso gogorra izen den sei hilabeteko greba, eta langileen birkokapen ezaren fruitu izan den aste honetako kanpaldiaren ondoren, uztailaren 24-ko gaueko 12etan akordioa lortu dugu. Akordio hau atzoko egunean sinatu da.

Akordioak, kalte-ordainak zehaztuz gain, langileen birkokapena jasotzen du. Kalte ordainak geriatriko berrian izango diren ordainsarien diferentziarenak dira, hain zuzen behin Udalhitz hitzarmenaren igoera (%5,2) kontutan harturik 4,5 urteei dagozkienak, era guztietan lan egin den urte bakoitzarengatik 45 eguneko kalte-ordaina gutxienez bermatuz.

Kalte-ordainek zera suposatzen dute: lan egin den urte bakoitzarengatik 45 egunetik 140 egun bitartean. Kopuruetan berriz, 28.401,44€ eta 82.523,90€ bitartean.

BALORAZIOA

Langileon ikuspegitik, akordioa oso ona da. Garbi dago borrokaren ondorio eta emaitza dela. Baina ezin dugu ahaztu bai Foru Aldundia gobernatzen duten eta Zumarraga Udaleko alderdien jarrerak.

Langileak kalean uztearen erabakia, garbi dugu Foru Aldundiak hartua zuela, eta birkokatu baldin badira, presio eta ekintza sindikalarengatik izan dela. Klase politikoak jokatu duen papera, deitoragarria da: bost axola izan zaie prozesu honetan langileak kalean uztea, pribatizazioak, besteak beste, suposatzen zuen, urteko 6.000€-ko diferentzia kalte-ordain txiki batekin ordaindu nahiaz. Alderatzuz, politikariek ez dute zalantza izpirik, beraien soldatak igotzea erabakitzen dutenean, edo eta enpresa pribatuetara joateko beraien kargu publikoak uzten dituztenean.

Hauxe da gizarte zerbitzuen pribatizazioaren benetako aurpegia: batzuk dirua barra barra irabazten duten bitartean, herri hontako langileria suntsitu nahi dute. Ez da ahaztu behar Foru Aldundiak Gizarte Zerbitzuak pribatizatzeke duen Plana eta erabakian beste pauso bat dela.

Azpimarratu baita ere, Zumarragako PSE eta Zumarraga Udaleko alderdi gehienen jarrera penagarria eta ziztrina. Behin eta berriro beraiek hitzemandakoaren kontra, langile guztiak ez berkokatzearen meatxua azken unera arte mantendu dutelako.

Bukatzeko, adierazi gizarte zerbitzuen alorrean aurrentzean ere lan handia dugula egiteke. Izan ere, interes ekonomikoak eta politikoak bat egiten duten esparrua dugu gizarte zerbitzuena eta dudarik gabe, langileon borroka gogorra izango da. ELAK, egoera honetan egin duen bezalaxe, garbi du, bukaerarte defendatuko dituela langileen eskubideak.

Zumarragan a 2008ko uztailaren 30a